

Matematikazko abertzaletasuna

Euskaldunon Egunkaria, 1991-06-09: 2.

Matematika, baliotsua da zientzi honi dagozkion alorretan, baina ez bestetan. Ezaguna da 3 eta 4 Zazpi direla arrautzak kontatzean, baina buru-bihotzeko euskal politikagintzan, bakar Bat. Sabin Aranek Euskal Herriaren arazo nagusia erabiltzeko matematikari dagozkion datuak erabili izan bazituen ez zen Euzkadiko bihotzera inoiz iritsiko.

Bizkaian geratuko zen, agian, eta karlistak izango ginen oraindik.

Ni ez nator karlisten aurka, aitonen kontra joatea bezala izango litzatekeelako. Begoz XIX mendean bake onean. Baina XXIaren bezperan (Sabin, Agirre eta Ajuriagerraren esturak tarteko) geure arerio nagusia non dagoen ez bageneki bezala kokatzen badugu, gureak osorik egin du, ez dugu gehiago ezertan sinetsiko. Estrategia eta antzeko beste arteak kontuan hartzea legezkoa da; bideak, politikan ere, gizonak ibiltzekoak dira; baina Jaurlaritza osatu berria den moduan jokatzeko gauza izan eta gero, euskaldunak elkar hartzeko bidea jarriak garen une honetan berriz banatzeko bidean sartzea bezala da negoziarako azeriak eta oilaskoak oilategi berean jartzea, euskararen onerako asmotan ikastola sortu dutenek beronekin akabatu nahi dutenekin lanerako ekipo bat egitea.

Madriren agintzen dutenekin elkartzeak indarra badakar, nor lurperatzeko? Geure folkloreko "krixpitiin-kraxpitiinak" "arrosa krabelinak" erritmo hutsa!, politika zorroztean sartu nahi izatea, 1839ko Legearen baitan ongi sentitzea, eta Nafarroako bidean eta Anoetako izpirituan berriz alferrik sinesten jartzea bezala izango litzateke.

Erritmoaren matematikak, bai noski, ez besterik.